



## Ikus-entzunezkoen Klusterren II. Etabaida-bilera II Foro de Clusters Audiovisuales 2nd Audiovisual Clusters Forum

# Eiken-ek Estatuko ikus-entzunezko cluster guztiak bildu ditu Bilbon, egungo egoera ekonomikoaren aurrean elkarlanerako estrategia ezartzeko

### Estatuko eta nazioarteko erakundeen aurrean ordezkaritza izango duen elkarlanerako esparrua eta lan iraunkorreko sarea ezartzea erabaki dute

**Eikenek – Euskadiko Ikus-entzunezko Clusterrak, Estatuko ikus-entzunezko cluster guztiak bildu ditu gaur (abenduaren 11n) Bilboko Euskalduna Jauregian, Sektorean berrikuntzaren bultzatzaile nagusi gisa betetzen duten lanaren inguruan jarduteko eta elkarlanerako puntuak identifikatzeko, horrela, Ikus-entzunezko Clusterren Sarea eratzeko.** Izan ere, ekonomiak une honetan bizi duen atzerapen egoeran, Ikus-entzunezko enpresek bat datoz esaterakoan **elkarlana “ezinbestekoa” dela, eta clusterrak “gure enpresek behar duten bultzadaren abiapuntu izango diren oinarritzko tresna direla”** azpimarratu du Juan Mari Gurrutxagak, Eikeneko – Euskadiko Ikus-entzunezko Clusterreko presidentea.

“Ikus-entzunezko clusterrak: berrikuntzarako eta lehiakortasunerako tresna” izenburupean, foroan hartu dute parte, beste batzuen artean, Antón Reixak, Galiziako Ikus-entzunezko Clusterreko presidentea; José Francisco Martínezek, Valentziako Ikus-entzunezko Clusterreko presidentea eta Fernando de Garcillánek, Madrilgo Ikus-entzunezko Clusterreko presidentea.

Parte hartu duten Autonomia Erkidegoetako –EAE, Galizia, Katalunia (i2cat Fundazioa), Valentziako Erkidegoa, Madril, Extremadura, Andaluzia eta Balear Uharteak– arduradunek, Ikus-entzunezkoen Sektoreak bere aurrean dituen zailtasunei eta erronkei buruz aritzeko aukera izan dute, eta beraien esperientziak trukatu dituzte, **akordiorako gune zehatzak eta denen interesak identifikatzeko, horrela elkarlanerako nazio mailako sarea martxan jarri ahal izateko.** Sare hori, ziurrenez, interneteko plataforma batean oinarrituko litzateke, baina, horrez gain, elkarlanean aurrera egiteko beharrezkoak diren ekimen berritzaileak, proiektuak eta programa zehatzak ere izango litzuzke.

#### **Ondorioak**

Ikus-entzunezko Clusterren II. Foro honetatik **clusterren arteko elkarlanerako esparrua** finkatzeko konpromisoa sortu da, alde batetik, estatu eta nazioarte mailako erakundeekin elkarriketa sortzeko eta, beste alde batetik, lanerako sare iraunkorra martxan jartzeko. Horretarako, gaur Bilbon bildu diren arduradunek, erakunde-agenda koordinatuko duen eta eratuko duen eta informazioa, ezagutza eta

berrikuntzarako agenda estrategikoak konpartitzeko sarearen garapena bultzatuko duen idazkaritza teknikoa eratzea planteatzen dute.

Halaber, bertaratutakoek konpromisoa hartu dute **elkarlanerako proiektu zehatzen garapena aztertze**ko, gaur egun indarrean dauden finantzaketa lineez baliatuz (Avanza programa, Interreg...). Zehatzago esanez, Ikus-entzunezko Industriaren balio katea guztia bilduko duen eta elkarlanean oinarrituriko Ikus-entzunezko Sarearen garapena barruan hartuko duen normalkuntzarako batzorde teknikoa sortzeko aukera aztertuko da.

Clusterren arteko Foroa, iraupenerako duen asmoa dela eta, Valentzian bilduko da datorren urtean.

Foro hau burutu aurretik, Eikenek – Euskadiko Ikus-entzunezko Clusterrak, beraien interesak kontuan izanik, **clusterren arteko elkarlanerako gai nagusiak** izan beharko liratekeen gaiei buruzko informazioa jaso zuen gainerako clusterretatik, eta informazio horretan oinarrituz ezarri da gaur Bilbon burutu den laneko bilerarako agenda. Informazio horretan oinarritu dira, baita ere, martxan jarriko diren elkarlanerako jarduketak zehatzak. Horrela, Forora bertaratu direnek, kudeaketaren eta prestakuntzaren hobekuntza, teknologia berriak eta edukien ekoizpena, berrikuntza edo clusterrek beraiek bete beharreko lana bezalako gaiak biltzen dituzten hamar bat proposamen landu dituzte.

Horrez gain, clusterren arteko bileraren zati bat aurrerapausoak emateko eta, erkidego mailan indarrean dauden programen bitartez Europa mailako clusterren elkarteekin elkarlanean proiektuak garatzeko gaitasunean zentratu da. Izan ere, 2009a, Berrikuntzarako eta Sorkuntzarako urte europarra izango da, eta horrek aukera berriak irekiko dizkie elkartei.

Txanponaren beste aldean, aurreikuspenek esaten dute 2009tik aurrera Ikus-entzunezkoen Sektoreko enpresak krisiaren ondorioak nabaritzen has daitezkeela, bi faktorek bat egingo dutelako: publizitatearen ondoriozko diru-sarrerek behera egingo dute, eta horrek murrizketak ekarriko ditu Telebistako kateek beraien ekoizpenetan egiten dituzten inbertsioak; eta beste alde batetik, LTD-ren garapenak leihogehiago irekiko ditu, eta horrek ikusle kopuruak zatitzea ekarriko du. Testuinguru horretan, **Clusterrek, berrikuntzak eta enpresen zein elkarten arteko elkarlanak sektoreari bultzada berria emango dioten konfiantza dute.**

### ***Interes puntuak***

Horrela, Clusterren arteko elkarlanerako interes puntu nagusien artean, elkarteek lehiakortasunaren eta berrikuntzaren garapena azpimarratzen dute, Ikus-entzunezko Clusterren sare digitala sortuz, berrikuntzarako azpiegitura esperimental gisa. Horrek aukera emango du sinergiekin baliatzeko eta Estatu osoko elkarten artean informazioa eta esperientzia arrakastatsua trukatzeko.

Clusterrentzat garrantzi handia duen beste zenbait puntu izango lirateke giza kapitalaren garapena, profesionalen prestakuntza hobetzearen bitartez; enpresa kudeaketa egokia lortzeko tresnen garapena eta baita sorkuntzaren eta jatorrizko edukien sustapena ere, Telebista interaktiboak eta plataforma eta teknologia berriek ematen dituzten aukerez baliatuz.

Alor guztietan azpimarragarria da elkarteek **informazio sarea** izateko duten interesa. Sare hori interneten egon daiteke, eta clusterren arteko web plataforma baten bitartez ezagutzak eta informazioa konpartitzeko aukera emango luke. Ikus-entzunezko clusterren arduradunen ustez funtsezkoa da, baita ere, cluster elkarteek beraiek ezagutaraztea, oso lan garrantzitsua egiten ari baitira erabakitzeko esparruetan, eta horrez gain, egungo egoera ekonomikoan enpresak bultzatzen dituzten elementu gisa jarduten baitute.

**Ikus-entzunezkoetako enpresen internazionalizatzea** da cluster guztien interesa pizten duen beste alor bat. Horretarako, nazioarte mailako azokatan eta jaialdietan parte hartzeko elkarlanerako bide berriak proposatzen dituzte.